



Istripu batek sute erraldoia eragin du AEBetako erraustegi batean.

Kontu ilunak Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketan

Estitxu Eizagirre Kerejeta

@eeizagirre

Ainhua Intxaurrendietak iragan azaroaren 29an Zizurkilen eman zuen hitzaldian azaldu zuen nola 2013an, bera GHKko lehendakariorde zela, dokumentazio gakoa gordetzen zuen ordenagailua lapurtu zieten. Auzitegiak 2015ean itzuli zien ordenagailua eta perituen arabera ordenagailu horretako 70.000 artxibo ezabatuak izan baziren ere, 190 artxibo berreskuratzea lortu zuten. Horien artean bat, oso garrantzitsua: zenbakiak kontuak erraz egiteko aukera ematen duen Excel liburu bat. Intxaurrendietaren hitzetan, "Excel liburuaren lehenengo orrian kalkulatu da zer botere kalorifikoa izango duen errauste plantak. Izan ere, erraustegiaren eta balorizazio energetikoko planta baten arteko ezberdintasuna, botere kalorifikoa kopurua da. Formula bat aplikatzen da, eta horren arabera, planta horrek lortzen duen energia kopuruaren arabera izendatzen da planta bat 'erraustegi' edo 'balorizazio energetikokoa'. Exceleko lehen orrian, formula hori aplikatuta, emaitzak ematen zuen balorizazio energetikoko planta bat zela orduko proiektua. Baina Excel liburu horretako bigarren orrian, formula horri gehitzen zioten plantak berak zuen

energia kontsumoa, martxan aritzeko. Eta orduan, jada, erraustegia zen".

Proiektu hori erraustegia edo balorizazio energetikoko planta izatea ez da energiari dagokion arazoa soilik. Intxaurrendietak azaldu zuenez, "erraustegia egiteko Europak ez du dirurik ematen eta Eusko Jaurlaritzak ez zuen baimenik eman: Eusko Jaurlaritzaren baimena balorizazio energetikoko planta bat egiteko emandakoa zen. Jakitun ziren horretaz, erraustegi bat izango zela, ez zuela balorizazio energetikorik lortuko, eta aurrera egin zuten".

Kontu ilunak GHKn artikulu sorta irakurgai duzu, argia.eus/blogak/estitxu-eizagirre helbidean.

Erraustegia, adjudikatuta

Zubietako erraustegia adjudikatu du Gipuzkoako Aldundiak. EAEko Auzitegi Gorenak GuraSOSen helegitea atzera bota eta biharamunean izenpetu du Jose Ignacio Asensio Gipuzkoako Aldundiko Ingurumen diputatuak erraustegiaren adjudikazioa. Lanak hilabete eta erdi barru inguru hasiko direla iragarri dute.

Bestalde, sute handia piztu zen otsailaren 2 gauean Virginia estatuan dagoen erraustegi batean, AEBetan. Erraustu behar zituzten hondakinek hartu zuten su eta zabaldu egin ziren garrak.

EKONOMIAREN TALAIAN

Bizkaiko oligarkiaren erretratua



Juan Mari Arregi

Egin izan banu Negurin finkaturiko Bizkaiko oligarkiaren argazki bat 60ko hamarkadan, demagogoa eta ahoberoa naizela esango zidaten. Hala ere, badago oligarkia hura osatzen zuten bostehun familiatik kide bat, 12 orrialdetan egiazko erretratua eskaini duena. Pedro Ibarra *Memoria del antifranquismo en el País Vasco* idatzi du. Liburu garrantzitsua da bere eta bere bikote-kide Carmen Oriolen testigantza eskaintzen duelako –biak oligarkiatik zetozen–, haien konpromiso militante eta antifrankista azalduz; baina baita ekarpena egiten duelako ere, Neguriko elite ekonomiko, politiko eta soziala ezagutzeko bidean. Gaienetik daudela eta pribilegiatuak direla uste dutenen jokabide eta kode moralak, nazional-katolizismoaren eragina, euren interes ekonomikoak babesteko frankismoaren barruan hartutako jarrera politikoa, kulturarekiko mespretxua... Horrek guztiak jendarte baten erretratua osatzen du. Pedrok eta Carmenek hortik ateratzeko ausardia izan zuten kontrako norabiderantz, langile klasearen ondora.

Oligarkia gordinenetik atera ziren, bai. "Bizkaian agintzen zuten familia urriek –dio Ibarra– botere politiko eta ekonomikoa zuten. Industria handian agintzen zuten zuzenean (elektrikak, siderurgia, industria kimikoa, meatzaritza), baita banku handietan ere. Eta zeharka agintzen zuten, zenbaitetan bitartekari gabe, politikan eta diktadura frankistan. Existitzen ziren hedabide gutxietan ere agintzen zuten. Hau da, euren zen dirua, boterea eta ideologia menderatzailea".

Eta oligarkia hori, ez dezagun ahaztu –gehituko nuke nik–, beste forma bat hartuta ere bizirik eta jardunean dabil, izan Negurin edo beste toki "lasaia" batzuetan jesarrita.